

# 5. BILERA-DEIA

Idazki horien bitartez, zenbait pertsonari egun eta toki jakinetan bertaratzeko eskatzen zaie.

Bilera baterako deiaz gain, edozein gonbita edota deialdi ireki egin daiteke idatzi horien egitura erabiliz.

Bilera-deia, pertsona bati toki, egun eta ordu jakinetan bilera duela eta bilera horretarako aztergaiak zeintzuk diren jakinarazteko erabiltzen da

Bilera-deiak argia, zehatza eta laburra izan behar du; normalean, zati finkoak izaten ditu. Hemen egitura eta zatien azalpena eskainiko dugu.



# 5.1 OINARRIZKO ARGIBIDEAK

<b>ORRI-BURUA</b>	
	<b>HARTZAILEA</b>
<b>IZENBURUA</b>	
<b>Hasierako agurra</b>	
<b>Bilerari buruzko zehaztasunak</b>	
<b>Aztergaiak edo gai-zerrenda</b>	
<b>Azken hitzak</b>	
<b>Toki egunak</b>	
	<b>Sinadura</b>
	<b>Izen-abizenak</b>
	<b>Kargua</b>
<b>Oharrak</b>	



## OSAGAIEN AZALPENA

### *a. Hartzailea*

Hartzailearen datuak helbidearekin batera orriaren goialdeko eskuinaldean jaso daitezke. Lehenik, hartzailearen kargua (kargua badu, noski); ondoren, izen-abizenak (jauna edo andrea jarri beharrik ez dago), eta, bukatzeko, deia jaso behar duenaren lantokia, edo, bere posta-datuak (helbidea, kodea eta herria). Datu horiek kartazalean ere adieraz daitezke.

### *b. Izenburua*

Bilera-deiaren izenburua oso baliagarria izaten da irakurleak zeri buruzko bilera den erraz identifikatzeko.

### *c. Bilerari buruzko zehaztasunak*

Atal horretan bost datu dira zehaztu beharrekoak:

- ✓ Biltzen den organo edo dena delakoaren aipamena
- ✓ Bilera mota (ohikoa, berezia, bilera zenbakia...)
- ✓ Bilera eguna
- ✓ Ordua
- ✓ Tokia (helbidea barne)

Datu horiek, besteak beste, bi eratara jaso daitezke: esaldi luze baten bidez edo zenbait datu bereizirik. Bigarren bidea argiagoa, laburragoa eta erabilgarriagoa da.

### *d. Aztergaiak edo gai-zerrenda*

Atal horretan bileran aztertuko diren gaiak biltzen dira, hurrenkera logikoaren arabera eta zenbakien bidez. Gai horiek buruak edota idazkariak zehazten ditu, gainerako kideek alde zurretik egindako proposamenak, halakorik balego, kontuan



hartuta. Gai-zerrenda bileraren araberakoa da; hala ere, **hasierako** eta **bukaerako** aztergaiak berdin samarrak izaten dira bilera-dei gehienetan:

**Hasiera:** Batzordea / epaimahaia osatzea (lehen bilera bada).  
Aurreko bilerako agiria irakurri eta onartzea, hala badagokio.

**Bukaera:** Eskariak eta galderak / Bestelakoak.

Bestalde, aztergai zerrenda oso luzea bada, komenigarria izan daiteke beste orri batean ematea, eranskin modura.

#### *e. Sarrerako agurra eta azken hitzak*

**Sarrerako agurrak**   Bazkidea:  
                              Jauna:  
                              Andrea:  
                              Bazkide hori:  
                              Jaun hori:  
                              Andre hori:

**Azken hitzak**        Besterik gabe, agur.  
                              Horrenbestez, agur.

#### *f. Toki-egunak*

Bilera-deia izenpetu aurretik, toki-egunak jarri behar izaten dira.





### *g. Izenpea*

Igorlearen datuak honela jasotzen dira: sinadura, igorlearen izen-abizenak eta kargua.

### *h. Noizbehinkako argibideak*

Orriaren behealdean, *Oharra* hitzaren ondoren, deiaren testua astun eta korapilotsu bihur dezaketen argibide guztiak biltzen dira. Esaterako:

-  Lehenengo deialdian nahiko jenderik ez bada, bigarren deialdirako zehaztutako ordua.
-  Bileran parte hartu behar dutenentzako abisua, norberaren bertaratzea konfirmatzeko.



## 5.2 BILERA-DEIAREN EREDUA

**Arin** Kirol Elkartea

Pagoeta kalea 12 - 20800 Orio - Tel. 943 130 130

JESUS LOPEZ JAUREGI  
Kale Nagusia 5, 1.esk.  
20800 ZARAUTZ

### ZUZENDARITZA BATZORDEA OSATZEKO BILERA-DEIA

Bazkide hori:

Honen bidez, gure elkartearen zuzendaritza batzordea osatzeko bilera-rako dei egiten dizut:

**Eguna:** 2003-05-12 (ostirala)

**Ordua:** 19:00

**Tokia:** Arin kirol elkartearen aretoa

Aztergaiak:

1. Aurreko bilerako agiria irakurri eta onartzea, hala badagokio.
2. Irtengo den zuzendaritza batzordearen proposamena aztertzea.
3. Zuzendaritza batzorderako hautagaiak izendatzea
4. Bozketa
5. Eskariak eta galderak

IDAZKARIA

Amaia Arakistain Bastida

Zarautz, 2003ko apirilaren 25a

Oharra: Bertaraterik ez baduzu, deitu, mesedez, ahalik eta lasterren telefono honetara: **943 130 130**